

Euskararen Plan Orokorren geldialdiari kritika

Aste honetan EA-EAJ eta Batasuna alderdiek Euskararen Plan Orokorren eta Udál Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II Plangintzaldiaren gauzaperi eza salatzen dute. Euskararen Plan Orokorri dagokionez, EA-EAJ koalizioak zinegotzi Josu Ruizek hitzetan: "Joan den urterako aurreikusitako ekintzen %40 besterik ez da egin". Beraz, koalizioaren ustez, "balantzeak alkatearen eta Gobernu taldearen borondate falta erakutsi du". Batasuna

alderdiak, bere aldetik, gogor kritikatu du PSE-EE alderdiaren jarrera. "Euskararen Patronatu-ko Gobernu Kontseiluak igorritako txostenean ez da Jarrapen Batzordearen 2002ko jardunari buruzko inolako informaziorik eman. Hori gutxi balitz bezala, ez dira aurreikusitako ekintza guztiak egin, eta egin direnek ere ez dute inolako berrikuntzarik ekarri". Jakinarazi digute Batasunako kideek. Udál funtzionariak euskalduntzeko plangintzari

dagokionez, berriz, alderdiok zorrotzak dira. "Plana onartu zenetik bi urte igaro dira; baina ez da hainbat esparrutan, Udaltzaingoa eta Kirol Patronatuan kasu, inolako plangintzarik egin" esan du EA-EAJ koalizioak. Beste hainbeste dio Batasunak: "Udaltzaingoa eta Kirol Patronatuan atal elebidunak sortzeko aukerarik ez dagoela esan zaigu, horretarako baldintzak ez daudelako. Plana onartu eta birurtera hori gertatzea penagarria da".

Donostia arte garaikidearen gune

Aste honetan bertan eman da lehen urratsa 2004. urtean Manifesta Arte Garaikidearen Biurtekoa Donostian izan dadin. Manifesta European arte garaikidearekin lotuta egiten den ekitaldi nagusietakoa da.

Ekimena Donostian izan dadin akordioa asteartean sinatu zuten. Bertan, batetik, Manifesta egiten duen fundazioko kideak izan ziren eta bestetik, Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala. 2004ko maiatzetik urrira arte egin-

go da ekimena, eta bertan ohiko erakusketek gain, kale ekintzak, eztabaidak, ikusentzutekoak eta abar izango dira. Sinatutako akordioaren arabera, datoen hila batean Manifesta Nazioarteko Fundazioari 150.000 euro emango dizkiote hiru erakundeek, eta gerora, guztira, 1.200.000 euro bideratuko dituzte ekimenarentzat.

2004ko ekitaldia Manifesta 5 izango da. Manifesta 4 hamabost egun barru hasiko da Alemaniako Frankfurt hirian. Aurreko hiru ekitaldiak, berriz, Roterdamen (1996), Luxenburgon (1998) eta Ljubljanan (2000) egin ziren. Arte garaikidearen biurtekoa Donostian egiteko eskaera duela urtebete egin zen. Aukeraketa Manifesta fundazioko kideek egin dute, eta tartean dira Europako museo eta artegune garrantzitsuenetako ordezkariak. Hauek, Donostia aukeratzeko, hainbat arrazoi eman dituzte. "Egoera sozio-politiko dinamikoa du hiriak eta mota guztietako azpiegitura kulturalak eta instituzionalak handituz doaz etengabe", adierazi dute. Bertako erakundeek ekimena bultzatzeko hartutako konpromisoa ere kon-tuan hartu du fundazioak. Azkenik, kon-tuan izandako beste elementu bat hirian egiten diren nazioarteko kultur ekimenak dira; hots, Zinemaldia edo Jazzaldia.

Manifesta beraren definizioari dagokionez, "helburua hiri giroan sartzeta da, modu horretan bizitasunaren eta aniztasunaren kultura zabalduz", adierazi dute fundazioko kideek.

Nabarmen

Josu Landa, interneten lehena

Josu Landa idazle altzatarrak "Odolbilda" eleberria oso osorik interneten sartu du. Hala, eleberri bat osorik interneten sartu duen lehen idazle euskalduna da. Josu Landak duela gutxi argiratu zuen "Odolbilda" eleberria Susa argitaletxearekin, eta pape-rean argitaratu eta berehala interneten ere sartu dute. Proposamena Landak berak egin zion Susa argitaletxeari, eta honek begi onez ikusi zuenez, argitaletxearen web orrian sartu du: www.susaliteratura.com. Argitaletxeak jakinarazi duenez, aurrerantzean gauza bera egiteko asmoa dute, betiere egilea liburua interneten sartzearrekin ados dagoenean.

